## Elefanteak eta Kenyako nekazariak



La2 • 11:30ean

La2 kateko *Vigilantes de la naturaleza* saioan elefanteek Kenyako laborariei sortutako arazoak izanen dituzte hizpide.

### ETB 1

07:25: **Lurraren arnasa.**
07:55: **Euskal Herritik.**
08:20: **Kazetari ausartak.**
08:45: **Erroman jandalo.**
09:05: **Bruno gaztea.**
09:30: **Herkules.**
10:15: **Egi bidean.**
10:30: **Meza Santua.**
11:30: **Kirolaz blai.**
Gure kintzea (11:30). Galarleiz mendi maratoia (laburpena, 11:45). Bela (12:10). Zesta: Profesional-Mastersek o finala: Lander-Elizegi/Mendi-Irastortza.
14:00: **Gaur egun.** Albistegia.
14:45: **Mintzoaren arnasa**.
15:30: **Barre busa.**
16:30: **Dinamita.**
17:00: **Hiru izar.**
17:30: **Gagnorarik gagbe.**
18:30: **Txirrindularitza.** Getxoko Nazioarteko Kriteriuma (laburpena).
18:55: **Futbola.**
Real Union-Alaves.
**Gaur egun.** (Partidaren atsedenaldian).
22:35: **Pilota: Eskuz binaka**
Olaizola I-Berna/Capellan-Zezeaga.
Galartza V-Sukia/ Xala-Arroyo II.
00:40: **Oporrock kontzertua.** Ricky Martin.
01:10: **Zine Oro.**
**Navy Seals.**
Zuz.: Lewis Teague. Akt.: Charlie Sheen, Michael Biehn. 1990.
03:05: **Easy Peasy.**
04:35: **Haran eta gailur.**
05:30: **Elkartasun bideak.**

### ETB 2

06:55: **Historias cubanas**.
07:20: **De leyendas y de viajes.**
08:15: **El mundo a tus pies.**
09:10: **Tiempo para Euskal Herria**.
09:20: **Luar.**
11:50: **Mareas vivas.**
12:05: **Sobrevivir en la selva.**
13:00: **Rutas de solidaridad.**
13:30: **Navarra al rojo vivo.**
13:55: **¡Mira, mira!.**
14:25: **Cantabric Blue.**
14:58: **Teleberri.**
15:40: **Zinema.**
**Hechizo de un beso.**
Zuzendaria: Norman René. Aktoreak: Alec Baldwin, Meg Ryan, Kathy Bates. 1992.
17:35: **National Geographic.**
18:45: **Stargate.** Telesaila.
19:30: **Mister Euskadi.**
20:58: **Teleberri.** Albistegia.
21:30: **Zinema.**
**El largo y calido verano.**
Zuzendaria: Martin Ritt. Akt.: Paul Newman, Orson Welles. 1967.
23:40: **La noche fantástica:** El elegido. (23:40ean).
Más allá del límite (00:30ean).
01:15: **Zinema.**
**Lobos humanos.**
Zuzendaria: Michael Wadleigh. Akt.: Albert Finney, Diane Venora. 1981.
03:00: **Pensacola.**
03:45: **Amaiera.**

## gaurko filmak

Iñaki Lazkano

■ **SENSO.**
Luchino Visconti italiarra *Il Gattopardo*, *La Terra Trema* eta *Rocco e i suoi fratelli* maisulanen egile izan zen. Zinema aditu askoren ustez, ordea, *Senso* da haren filmik biribilena. Filma XIX. mendearen erdialdean dago girotuta. Italiar nazionalismoa puri-purian dago eta aristokraziaren gainbeheraren sintomak nabarmenak dira. *Il Gattopardo* ederrean ez bezala, ordea, aristokrazia hilurrena ez da filmaren ardatz nagusia. Viscontik Livia aristokrata italiarraren eta Franz Mahler teniente austriarraren arteko maitasun harremanari ematen baitio lehentasuna. Ezinbestekoa. Ez galdu.

■ **OCHO MILLONES DE MANERAS DE MORIR.**
Oliver Stone polemikoaren sinadura zuen gidoi txukun bat ardatz hartuta, *thriller* bikaina filmatu zuen Hal Ashby zinemagileak. Mathew Scudder polizia kalean utziko dute droga trafikatzaile bat hil eta gero. Horrek, krisi latz batean hondoratuko du. Edaten hasiko da eta emazteak abandonatuko du. Ordutik aurrera, beste poliziek baztertzen dituzten kasuetan lan egiten hasiko da. Ikerketa arriskutsu horietariko batean, berak babesten zuen prostituta bat hil egingo du Angel droga trafikatzaile kolonbiarrak. Scuddek mendekua bilatuko du. Akziozko film txukuna da.

■ **EL LARGO Y CALIDO VERANO.**
William Faulkner idazle handiaren eleberri iradokitzaileenetariko baten egokitzapen ederra egin zuen Martin Ritt zuzendariak. Mississipiko herrixka bateko neska lirain batekin maiteminduko da Ben Quick gaztea. Bertako lurjabe boteretsuak, ordea, emakume berbera du maite. Paul Newman erakargarriak jokatzen du rol nagusia. Melodrama bikaina da, benetan.

### Bihotza pitzatzen duten sekretuak

■ **SECRETOS Y MENTIRAS.** Mike Leigh britaniarraren drama gordinak, Cannesko Urrezko Palmorria bereganatzeaz gain, ikusleen nahiz kritikari gogorrenen bihotza pitzatu zuen. Cynthia langabeziak astindutako auzune txiro batean bizi da, Roxanne alabarekin batera. Egun batean, ezagutzen ez zuen alaba afroamerikarraren telefono deia jasoko du. Hortense —Cynthiaren alaba— ezinbestekoa izanen da familiaren zoriona eragozten duten sekretu zein gezur saminak amaitzeko. Brenda Blethyn aktorearen interpretazioa zirraragarria da, zinez. Melodrama ederra da.

| | | |
|---|---|---|
| **Loca evasión** 1973, Steven Spielberg, 106 m. | ♠♠♠ | 15:35 TVE1 |
| **Hechizo de un beso** 1992, Norman René, 105 m. | ♠♠♠ | 15:40 ETB2 |
| **Sabrina en Roma** 1998, Tibor Takacs, 95 m. | ♠♠ | 15:45 A3 |
| **Aeropuerto 75** 1974, Jack Smight, 102 m. | ♠♠♠ | 18:00 TVE1 |
| **Little voice** 1999, Mark Herman, 95 m . | ♠♠♠ | 20:30 C+(f) |
| **Halfaouine, l´enfant des...** 1990, Ferid Boughedir, 100 m. | ♠♠♠ | 20:40 Arte |
| **Pile ou face** 1980, Robert Enrico, 105 m. | ♠♠ | 20:50 F2 |
| **On ne vit que deux fois** 1967, Lewis Gilbert, 120 m. | ♠♠♠ | 20:55 TF1 |
| **El largo y cálido verano** 1958, Martin Ritt, 111 m. | ♠♠♠♠ | 21:30 ETB2 |
| **Instinto letal** 1997, Bill L. Norton, 86 m. | ♠ | 21:35 TVE1 |
| **Kenshin le vagabond** 2000, Kazuhiro Furuhashi, 115 m. | ♠♠♠ | 22:05 C+(f) |
| **Zorro** 1974, Duccio Tessari, 120 m. | ♠♠ | 23:05 TF1 |
| **Ocho millones de maneras...** 1986, Hal Ashby, 111 m. | ♠♠♠♠ | 23:35 TVE1 |
| **Senso** 1954, Luchino Visconti, 115 m. | ♠♠♠♠♠ | 23:45 F3 |
| **Implicación criminal** 1990, Stephen Gyllenhaal, 91 m. | ♠♠♠ | 00:30 Tele5 |
| **Navy Seals** 1990, Lewis Teague, 113 m. | ♠♠ | 01:10 ETB1 |
| **Lobos humanos** 1981, Michael Wadleigh, 108 m. | ♠♠ | 01:15 ETB2 |
| **Silencio del norte** 1981, Allan Winton, 90 m. | ♠♠ | 02:35 TVE1 |
| **Secretos y mentiras** 1995, Mike Leigh, 141 m. | ♠♠♠♠♠ | 04:00 A3 |
| **Fango bollente** 1975, Vittorio Salerno, 81 m. | ♠ | 04:05 TVE1 |
| **La guitarra de Gardel** 1949, Leon Kilmowsky, 98 m. | ♠♠ | 04:30 La2 |

♠ TXARRA ♠♠ ESKASA ♠♠♠ BALEKOA ♠♠♠♠ ONA ♠♠♠♠♠ BIKAINA



Timothy Spall eta Brenda Blethyn, *Secretos y mentiras* filmeko irudi batean.

## irratia ◆

**Euskadi irratia.** Goizeko albistegi nagusiaren ondoren hasiko da *Bide Batez* saioa, 10:00etan, eta arratsaldeko 13:00 bitartean, denetarik izango da. Hasteko, Idahoko estatutik, Amerikako euskaldunek euren jaiaren oihartzuna igorriko dute. Egun handiak dira haientzat. Baina Gipuzkoan ere egun handia izango da batzuentzat, azpeitiarrentzat adibidez, saninazioak hasiko baitira bihar. Bidenabar, Azpetiako plazatik emango dute hango giroaren berri. Bitxikeriak ere ez dira faltako: Juan Martin Elexpuruk, etxetik kanpo pasatu zuen lehen uda nolakoa izan zen kontatuko du.

**Bizkaia Irratia.** *Aupa Bizkaia* irratsaioarekin hasiko dute eguna. Goizeko 7:00etatik 9:00ak arte iraungo du horrek. Jarraian, igandero legez, meza emango dute, 9:00etan hasi eta 9:30ak bitartean. Ondoren, zorion agurren tartea izango da, 11:00ak arte. Ordu eta erdi horretan urteak betetzen dituztenak izango dira protagonista; musikak ere bere tartetxoa izango du, jakina. Gero, *Jira Biran* saioaren txanda iritsiko da, 11:00etatik 15:00ak arte. 23:00ak arte, aldiz, *Kantuka kontuka* ibiliko dira, eta, amaitzeko, *Amets giroan* saioa izango da entzungai .

www.deika.com
943 344 494

• TELEF. FINKOA
• TELEF. MUGIKORRA
• AHOLKULARITZA INFORMATIKA
• INTERNET
• TELEFONOGUNEAK
DEIKA telekom
ENPRESA ZERBITZUA:
M. Etxeberria 1 ERRENTERIA
Morrongilleta 1 ERRENTERIA
Hirib. Nafarroa 25 BEASAIN
BANATZAILE OFIZIALA:
Euskaltel
LAISTER ZUEKIN:
Areizaga 1 URRETXU